

«Lehiaketa asko neuk ordaintzen dudanez, gurasoakaz bizi naiz»



NAIOMI MATTHEWS
Jiu-jitsuko
munduko txapeldun

hiruka

134. zenbakia

2018ko irailaren 20tik 26ra arte


EHUn berdintasun errealaren bila

Besteak beste indarkeriaren kontrako protokoloa martxan ipintzeko pausoak eman gura dituzte abenduan aurkeztuko duten EHuko III Berdintasun Planaren bitartez. Leire Imaz algortarra da bertoko Berdintasunerako zuzendaria.



MARKEL REDONDO LARREA | 10

ZENTZURIK GABEKO EGOERAK IKUSBIDE



Argazkilari bilbotarrak neurrigabeako urbanismoa erretratatu eta ondorioak aurkeztu ditu Getxophon.

ITZUBALTZETAKO EUSKALGINTZA | 6

GANBARAREN HUTSUNEA AGERIAN 20. URTEMUGAN

Ganbara AEK euskaltegia zena eraitsi egin dute, Itzubaltzeta/Romon turistentzako zortzi apartamendu eraikitzeko.

ELIKADURA-BURUJABETZA | 8

ARRANTZAREN MEMORIA BERRESKURATU GURAN

Lemoizen arrantzak izan duen bilakaeraren nondik norakoak aztertzen dabil egunotan Basordako Gonagorriak taldea.

EUSKARALDIA | 9

IZEN-EMATE EPEA ZABALDU DUTE

Herrietan Ahobizi eta Belarriprest modura jarduteko izena eman daiteke. Getxon, gainera, Iribizi papera izango dute aukeran.

ERRUGBIA | 12

BAIONAKO ETA GETXOKO ESKOLAK, ELKARLANEAN

Zapatuan, Baiona Avirongo eta Getxoko errugbi-eskolek topaketa egingo dute Faduran. Konplizitatea sortu da klub bien artean.



«Maskulinizazioaren jakintza-arloa eskaintza gutxiago duen EHUn, zere...»

EHUko Bertintasunerako zuzendari izendatu zuten Leire Imaz Zubiaur Zuzenbide irakasle algortarra, 2017ko otsailaren 2an. Gaur egun, hirugarren Bertintasun Plana osatzen dabilta unibertsitateko eragileak.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIAK: HODEI TORRES ▶

Erronka handia da zuretzat EHUko Bertintasunerako zuzendaria izatea? Bai. Nekane Balluerka errektorearen agintaldia hasi zenean izendatu ninduten Bertintasunerako zuzendari, eta gaur egunera arte egindako lana aberasgarria izan da. Unibertsitatea handia da. Hiru campusetan banatutako 47.000 bat pertsonok osatzen dugu: 39.185 ikaslek, 5.664 irakaslek eta 1.891 administrazio eta zerbitzueta langilek. Erdia baino gehiago emakumeak. Unibertsitate osorako emakumeen eta gizonen berdintasun erreal eta genero-aniztasuna sustatzeko politikak diseinatzeak eta martxan ipintzeak badu bere koska. Atzean sukaldeko lan itzela dago.

Emakumeak EHUn

- 39.185 ikasleetatik % 54,10 dira emakumezkoak.
- 5.664 irakasleetatik, % 47,65 dira emakumezkoak.
- Administrazio eta zerbitzueta 1.891 langileetatik, % 64,04 dira emakumezkoak.

Zeintzuk dira zure buruari ipini dizkiozun helburuak? Alde batetik, aipatutako politika horiek diseinatzeko eta martxan ipintzeko ekintzen bidez jorratu behar diren ildoak edo ardatzak daude. Askotarikoak dira, eta horiei ekitea ezinbestekoa da: genero-indarkerien kontrako protokoloa, online-formazio orokorra ikasleentzat eta langileentzat, III Bertintasun Plana, Akademe Programa...

Baina ekintzak eta ardatzak zelan landu behar diren erabakitzea ere oso garrantzitsua izan da, hasieratik, niretzat. Ekintzak aurrera eramateko moduak, bideak berak, askotan ekintzaren arrakasta eta hedapen egokia bermatzen du. EHUn berdintasun-sare bat jostea izan da hasieratik nire helburuetariko bat. Zuzendaritzak badauka Batzorde Aholkularia eta EHUko ikastetxe guztietan berdintasun-batzorde bat dago. Akademe Programan parte hartu dugun emakume akademiakoak gaude beste alde batetik, LGTB kolektiboan parte hartzen duten kideak ere bai, Genero eta Feminismo ikasketak lantzen dituen Master espezifikoan diharduten irakasle eta ikasleak, Bertintasun Masterrean dabilzanak, sindikatueta ordezkariek, gai zehatzetan adituak diren ikerlariak... Orokorrean,

atutako en txituz orionez»

Hirugarren Berdintasun Plana, abendurako prest

Formakuntza

Hezkidetzaren, Berdintasunaren eta maskulinitate berriaren Hizkuntzaren erabilera inklusiboa bezalako online-ikastaroak ematen segituko dute. Kurrikularra den zeharkako formazio hori hainbeste hedatzea berria da EAEn; bi mila pertsonak izena eman zuten ikastaroen lehenengo edizioan. Hala, bide horretan sakontzea garrantzitsua dela uste dute. Orain arte eman ez dituzten beste gai batzuk ere online eskaini gura dituzte, eta ekimena beste eremu batzuetara zabaltzeko gura dute.

Horretaz gainera, generoagaz lotutako irakasgaiak sartu gura dituzte, apurka, hainbat jakintza-arlotan. Zenbait gradutako ikasleei eskainiko lizkiokete irakasgai horiek; hasieran, hautazkoak izango ziren eta, etorkizunean, derrigorrezkoak.

Bestalde, genero-indarkeriari buruzko formazioa eskaintzen dabilta hainbat ikastetxetan. Ikasleak eta AZPko langileak parte hartzen dabilta formazio-programetan.

Lidergoa

Emakume akademikoen lidergoa bultzatzen duen Akademe programagaz jarraituko dute. Hirugarren Berdintasun Plana osatzen dabilen lantaldearen ustez, ezinbestekoa da emakumezkoak ardura-karguetan egotea. Emakume akademikoen artean sare bat sortzen dabil, egitasmo horri esker.

Genero-indarkeria

Ekainean onartutako genero-indarkeriaren kontrako protokoloa martxan ipini gura dute. Horri lotutako hainbat egitasmo daukate eskuen artean, planean txertatu dituztenak.

Maskulinizazioa saihesteko neurriak

Neska gazteengan maskulinizatuta dauden jakintza-arloekiko bokazio goiztiarrak lantzeagaz ere arduratuta daude; eremu horretan ekarpena egin gura lukete.

Ikerketa

Genero-gaietan ikerketak bultzatu gura dituzte, horretarako diru-laguntza espezifikoak eratzuz. Halaber, daborduko ikerketa-lanak saritzeko existitzen diren lehiaketak sustatzen segituko dute.

Lana eta familia bateragarri egitea

Lan-harremanetan, familia, bizitza pertsonala eta lana uztartzeko baldintza hobekitzeko sakontzen dabilta. Horretarako, Sektore Arteko Batzordea daukate, sindikatuetako ordezkariak batera, hainbat neurri aurrera ateratzen ahalegintzeko.

berdintasunagaz eta aniztasunagaz konpromisoa duten ehunka lagun daude EHUen. Euren parte-hartzea ezinbestekoa dela deritzot, modu batean edo bestean: parte-hartze hori bermatzea; denon jarduna saretzea, konektatzea; elkar ezagutzea eta elkarregaz lan egitea... Modu horizontalean eta hiru kolektiboetako (ikasleak, irakasleak eta AZPko langileak) partaideak elkartuz, hiru campusetan arituz, ahal den neurrian. Genero-indarkerien kontrako protokoloan halaxe ibili gara lanean eta emaitza oso ona izan da. Bideak garrantzia dauka. Energiak ondo uztartzea, errespetuz lan egitea eta gure arteko muga ikusezin horiek gainditzea lorpen handia izan da, nire ustez. Batez ere horrelako zeharkako helburuei buruz berba egiten gabiltzanean.

Karguan daroazun denboran helburu horiek egingarriak direla sumatu duzu? Bai, egingarriak dira. Ekintza eraginkorrak jorratzea posible da, EHUko berdintasun-sarea josten dugun bitartean. Bagabiltza horretan, gogotsu eta pozik. Hori bai, lan-karga handia dela ere onartu beharra dago. Lana sobera dago; ez da inoiz amaitzen.

EHUko bigarren Berdintasun Planak 2017rako epea zeukan. Daborduko hirugarrena lantzen zabilta? Bai, urtarrilean hasi ginen jorratzen II Berdintasun Planaren Exekuzio Txostena eta, ebaluazio horretatik abiatuta, III Planaren edukia bera lantzen hasi ginen. Bide honetan ere sarea martxan egon da. Ikastetxeetako berdintasun-batzordeek ekarpenak egin dituzte, eta sindikatuetako ordezkariak ere bai, lan-harremanen ardatzari dagokionez batez ere. Unibertsitateko Berdintasun Batzordeak ere egin ditu hausnarketa interesgarriak, eta hainbat pertsona adituk ere bidali dizkigute ideia berriak. Badago gorpuztuta eta azken ukituakaz gabiltza. Abendurako izango dugu III Plana.

Aurreko biek jorratu ez dituzten alorrak betetzera dator hirugarren Berdintasun Plana? Egia esan, II Planaren ebaluazioan islatzen denari jarraiki, aurreko planaren betetze-maila altua izan da. Badago hutsuneren bat eta, noski, bakan horiek jasotzen ditu III Planak. Baina badaude berrikuntza garrantzitsuak eta ausartak. Horietan ipiniko nuke nik arreta.

Zeintzuk izango dira horren ildo nagusiak? Formazioaren atal garrantzi handia dauka guretzat; izan ere, Unibertsitatearen muina hezkuntza bera da. Lehenengo aldiz hasi gara, aurtun, eta jarraituko dugu III Planareguz, doan, online-formazioa eskaintzen ikasle eta langileei. Lau ikastaro diseinatu eta martxan ipini ditugu: *Hezkidetzaren* (soilik euskaraz eta zenbait gradutako ikasleentzat, etorkizunean adin txikiakoz lan egingo dutenentzat, hain zuzen ere); *Berdintasunaren eta maskulinitate berriaren* (horiek Emakundegaz batera landu ditugu); eta *Hizkuntzaren erabilera inklusiboa*, euskaraz zein gazteleraz azken hiru ikastaroak. Bi mila pertsonak egin zuten matrikula eta gutxi gorabehera erdiak gainditu du ikastaroa. Oso pozik gaude ekimen honek eta orain, udazkenean, beste deialdi bat egingo dugu. Kurrikularra den zeharkako formazio hau hainbeste hedatzea berria da Autonomia Erkidegoan eta bide honetan sakontzen jarraitu behar dugu, beste gai batzuk online-formazio bidez eskaintzen eta beste eremu batzuetara zabaltzeko.

Halaber, generoagaz lotutako irakasgaiak sartu gura ditugu, apurka, hainbat jakintza-arlotan. Zeharkakoak, hainbat gradutako ikasleei eskainiak. Hasieran hautazkoak eta, etorkizunean, derrigorrezkoak. Erronka potoloa da, baina berri-tzailea eta, gure ustez, eraginkorra izango dena. Genero-indarkeriari buruzko formazioa ere eskaintzen gabiltza hainbat ikastetxetan. Baita ikasleen eta AZPko langileen formazio programetan ere.

Bestalde, Akademe programagaz jarraituko dugu. Orain atarako dugu, hain zuzen ere, laugarren deialdia. Emakume akademikoen lidergoa bultzatzen duen programa da eta arrakasta handia izan du parte-hartzaileen artean. Hortik ere sare bat sortzen dabilta: emakume akademikoen erreferentzia berri bat eraikitzen gabiltza, pausoz pauso. Ezinbestekoa da emakumeak ikerketa-proiektuen buruak izatea, sailtako buruak izatea, doktorego-tesiak zuzentzea, ardura-karguetan egotea... Hori bultzatu egin behar dugu, gogoz.

Bestelako ildo batzuk daukazue eskuen artean? Bai. Genero-indarkeriaren kontrako protokoloa ere martxan ipini behar dugu; horri lotutako hainbat egitasmo daukagu esku artean, planean ere txertatu direnak.

Bestalde, neska gazteengan maskulinizatuta dauden jakintza-arloekiko bokazio goiztiarrak lantzeak ere kezkatzen gaitu. Gure ekarpena egin nahiko genuke eremu horretan.

Genero-gaietan ikerketak bultzatu gura ditugu, horretarako diru-laguntza espezifikoak eratzuz, ahal den neurrian. Baditugu hainbat sari, ikerketa-maila bat baino gehiagotan gauzatzen diren lanak saritzeko; gero eta ugariagoak dira. Berbarako, Francisca Aculodi, genero-ikuspegia jasotzen duten gradu-amaierako lan onenak saritzeko; Maria Goyri, genero-ikuspegia jasotzen duten master-amaierako lan onenak saritzeko; eta Micaela Portilla, genero-ikuspegia barnebiltzen duen doktorego tesi-onena saritzeko. Horiek sustatzen jarraitu gura dugu. Azkenik, lan-ha-

rremanetan ere, familia, bizitza pertsonala eta lana uztartzeko baldintza hobek lortzeko bidean sakontzen gabiltza. Horretarako Sektore Arteko Batzordea daukagu, unibertsitatean, sindikatueta ordezkariaz batera hainbat neurri aurrera ateratzen ahalegintzeko.

Zein paper jokatu behar du EHUko berdintasuna sustatzeko orduan? Gure Zuzendaritzaren eremua EHU bera da. Eta eremu handia da, oso. Gure ekimenak unibertsitatean jorratzekoak dira, unibertsitatearen eremua osatzen dugunontzat. Berdintasuna lantzen duten beste hainbat agente, teknikari, elkarte eta instituzio dago udaletan, aldundietan, Eusko Jaurlaritzan eta kalean. Gure eremua espezifikoa da; mugatua. Baina badakigu, zelanbait, gizarteari begira, Unibertsitateak ere baduela erreferentzialtasun-errotka bat. Hezkuntza da gure oinarria eta berdintasuna zein aniztasuna goi-mailako hezkuntzan txertatzen ditugun heinean, etorkizuneko langileek genero ikuspegi landuagoa izatea bermatzen dugu, astiro bada ere; genero-estereotipoak desagerraraziz, eta ahal den heinean generoak eurrak desagerraraziz. Berdintasun formalaz harago, berdintasun erreala helmugatatzat hartu behar dugu. Aldaketa sakonak behar ditugu, munduaren, bizitzaren eta pertsonen arteko harremanak ikusteko eta garatzeko moduetan; bizitza ereduetan. Eta hezkuntza ereduetan eta diskurtsoetan ere bai.

Maila akademikotik jendartearen eragitea beharrezkoa da berdintasuna sustatzeko? Maila akademikoak berak behar du generoari buruzko hausnarketa sakona egitea. Gure artean ere, badago zer aldatu, zer irauli. Gure egitura bertikala da eta mendetan oso maskulinizatuta egon diren jakintza-arloak izan ditugu gure hezkuntza-eskaintzan. Gure horiek badoaz gutxitzen, zorionez. Datuek argi islatzen dute hori. Gaur egun gutxi dira gizonezkoen gehiengo nabarmena duten ikasketak; bagabiltza estereotipoa gainditzen. Eta emakumeok ere ardura-karguetara heltzen gara. Lehenengo errektore emakumea daukagu EHUan.

Aldi berean, maila akademikotik eredu berri hau gizarteratzen laguntzeko beharra dago; eredu izatea ere neurri batean badagokigu. Ardura handia dakar horrek; denon esku dagoen ardura, partekatatu beharrezkoa.

2018ko ekainean onartu zuen EHUko indarkeriaren kontrako protokoloa. Zein da helburua? Urtebeteko lana izan da, lan ederra eta oparoa. 2017ko maiatzean hasi ginen lanean 30 pertsonak osatutako lantalde misto batean: AZPko langileak, irakasleak, ikerlariak, sindikatueta ordezkariek, ikasleak eta adituak zeuden bertan. Estatuko unibertsitate publiko guztietako protokoloak aztertu genituen, eta euskal instituzioenak ere bai. Nafarroako Unibertsitate Publikoko berdintasun-teknikariaren bisita jaso genuen, hango prozesua hurretik ezagutzeko. Udazkenean prozesu parte-hartzailea zabaldu genuen EHUko hiru campusetan. Unibertsitatea osatzen dugunon iritzia jaso gura genuen, jendeak esateko zeukana entzun gura genuen. Hala, 300 pertsonak parte hartu zuten prozesu hartan, eta gehiagok helarazi dizkigute euren ekarpenak eta kezak. Horren guztiaren fruitua izan zen ekainaren 7an Gobernu Kontseiluak onartu zuen testua.

Tresna berri honen helburu nagusia genero-indarkeria jasaten duten pertsonen laguntzea da. Ez ditugu auzitegiak ordezkatzen. Ez ditugu beste instituzioek dauzkaten baliabideak ordezkatzen. Tresna osagarria da. EHUko kide batek, unibertsitatean edo bertatik kanpo, genero-indarkeria jasaten badu, gugana etor daiteke laguntza eske. Ez du salaketarik ipini behar polizia edo auzitegian, laguntza jasotzeko. Entzun egingo zaio, errespetu osoz, konfidentzialtasun osoz; beharrezkoa den beste, pertsonak gura beste. Horregaz batera, diziplinarteko batzorde bat osatuko dugu, beharrezkoak diren neurriak ebazteko.

Genero-indarkeriatik libre dagoen eremua da EHU? Ez, EHU ez da gizartetik kanpo bizi den burbuila. Ez dago erasoetatik



«Gaur egun gutxi dira gizonezkoen gehiengo nabarmena duten ikasketak, bagabiltza estereotipoa gainditzen; eta emakumeok ere ardura-karguak ditugu»

Gizartearen eredu

«Berdintasuna goi-mailako hezkuntzan txertatzen dugun heinean, etorkizuneko langileek genero-ikuspegi landuagoa izatea bermatzen dugu, astiro bada ere»

Genero-indarkeria

«Euskal Herriko Unibertsitatea ez da gizartetik kanpo bizi den burbuila; ez dago erasoetatik libre. Erasoak egon dira, bai; hainbat motatakoak»

Protokoloa

«EHUko kide batek genero-indarkeria jasaten badu, unibertsitatean edo bertatik kanpo, gugana etor daiteke laguntza eske. Ez du polizia salaketarik ipini behar laguntza jasotzeko»

libre. Erasoak egon dira, bai. Hainbat motatakoak. EHU, Estatuko unibertsitateetan *Pikara Magazinek* egin zuen azterketa bati jarraiki, genero-indarkeriei dagozkion barne salaketa-kopuru altuenetako du. Eta hori guretzat datu positiboa da. Indarkeria beti egon da, datu hori ukazina da. Baina gurean gero eta salaketa gehiago dagoela nabarmentzen dute datuek. Hori aurrerapauso garrantzitsua da. Genero-indarkeriak bizi dituzten pertsonak hurbiltzen hasi dira. Berba egiten hasi dira. Laguntza eskatzen hasi dira. Eta neurriak hartzen ditugu, kasu guztietan, beharizanen arabera. Aurrera daroatzagun berdintasun-politiken eraginkortasuna ere islatzen dute datu horiek, neurri batean.

Eraserik egotekotan, zelan jokatu behar da? Erasoak bizi dituzten pertsonen badaukate Zuzendaritzara jotzeko aukera; eta euren ikastetxeetara, zerbitzu medikura, sindikatueta ordezkariegana eta arreta psikologikoko zerbitzura ere bai. Harrera-gune bat baino gehiago dago. Gurera barne-salaketa bat heltzen denean, entzute-prozesua hasten da. Indarkeria bizi duten pertsonengan ipintzen dugu arreta; haren erritmoa errespetatzea da gure irizpide nagusia, haren beharren arabera prozesua garatzea. Indarkeriaren intentsitatea, indarkeria eragin duen pertsonaren nortasuna eta Unibertsitatean daukan tokia zein den aztertzen da kontua. Bestalde, aztertu beharra dago zein neurri izan daitezkeen egokiak, indarkeria jasan duen pertsonaren nahiak errespetatuz eta beraren segurtasuna bermatuz. Inplikatu dagoen ikastetxeagaz edo



zerbitzuagaz kontaktu zuzena egoten da eta haien erantzuna egokia izaten da. Gero eta konpromiso handiagoa dago. Indarkerien normalizazioa hautsi egin behar da; ez dira inola ere onargarriak. Eta horretan tinko mantentzea da gure helburua.

Baina genero-indarkeriako kasuez arduratzeko sortutako batzordeaz gainera, sentsibilizaziozko eta kontzientziaziozko kanpainak egingo ditugu. Arreta berezia merezi du, puntu honetan, diseinatzen ari garen prebentzio-programak. Gure ikasle neska gazteenakaz martxan ipini dugun programa da. Sukaldean dago orain, baina bigarren lauhilabetekoan martxan ipini gura dugu edizio pilotua. Adituakaz gaude harremantant; ekimen serioa eta eragin sakonekoa izatea gura dugu. Bertatik, ikasleen saretzea ere sustatzea da asmoa. Sareetan dago koska, nire ustez. Olatuetan.

Jendarteak genero-indarkeriari aurka egin diezaion zer egin dezake EHUk? EHUk barnera begira egiten dituen ekimen hauek guztiak badute, zelanbait, oihartzuna herritarrengan. Eta, pausoz pauso, eredu ere bilakatzen dira, neurri batean. Gazte asko igarotzen dira EHUtik, goi-mailako ikasketak egitera. Berton jasotakoa euren egunerokoan txertatzen badute, horra urte batzuetara ikus daitekeen fruitua. Baita langileengan ere, jakina. Eta inguruko unibertsitateetan ere. Azken horiek interesa agertu digute eta hori ona da beti.

Bestalde, genero-indarkerien aurkako EHUren protokoloa hedatzeko kartel-lehiaketa antolatu dugu. Oraindino deialdiko datuak ez dauzkagu eskura, baina ikasle askok deitu digute

Kartel-lehiaketa

Genero-indarkeriaren kontrako EHUren protokoloa ezagutarazteko eta ikasleen artean zabaltzeko, EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak kartel-lehiaketa antolatu du.

- Kartelaren helburua: lan irabazlea EHUko gela denetan eta espazio komunetan ipiniko dute.
- Zeinentzat: EHUko ikasle denek aurkez daitezke sariketara.
- Aurkezteko epea: urriaren 31ra arte.
- Sari-banaketa: EHUren Berdintasunerako Zuzendaritzak antolatutako azaroaren 25eko ekitaldi instituzionalean.
- Saria: Lehiaketaren irabazleak 600 euro eta diploma jasoko ditu.
- Ikusleen saria: EHUko ikasleen Internet bidezko bozketagaz, 300 euroko beste sari bat emango dute.
- Informazio gehiago EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzan.

udan zehar, zalantzak argitzeko. Seinale ona da hori, interesa piztu du. Harrera ona espero dugu. Sari bi egongo dira: publikoarena eta epaimahaiarena. Eta kartel irabazlea EHUko zentroetako ikasgeletan eta gune komun guztietan ipiniko dugu. Artea beharrezkoa da, oso, prozesu honetan. Sortzen gabiltzan bide berri honetan, irudimena, pizgarriak eta elementu berri-tzaileak ezinbestekoak dira. Diziplina guztien arteko fusioa beharrezkoa da; sormenezko ekintzak beharrezkoak dira.

Bestelako ekimenik daukazue gogoan? Genero-aniztasuna lantzea ere ezinbestekoa da. EHUko dokumentazio ofizialean sexu-generoko markatzaileak bi izan dira orain arte: emakumea eta gizona. Orain beste bat dago: ez-bitarra. Markatzaileak desagertu bitartean, behin-behineko neurri inklusiboa da azken hori. Komunetan ere aldaketak egingo ditugu; EHUko zentro eta espazio denetan komun mistoak egongo dira. Eta kartel hori eroango dute. LGTB kolektiboagaz adostu da komun horiek non ipini behar diren zentro bakoitzean eta zein kartel ipini behar den eurretan. LGTB-gunea ere sortzea da gure helburuetariko bat. EHUen errespetua izan dadin gidari, baita eremu honetan ere.

Jakintza arlo maskulinizatuetan emakumezko ikasleen matrikulazioa areagotzeko gure ekarpena egitea ere badaukagu eskuen artean, beste agente batzuek elkarlana sustatuz. Horrez gainera, emakume ikerlarien lanak ikusarazi eta emakumeen ekarpenak mahai-gainean ipini gura dugu, gazteentzat erreferente bilaka daitezten. ◀

ITZUBALTZETA | Ganbara AEK euskaltegia

Euskaltzetasuna darion zulozar baten urteurren tristeia




Areetako eta Itzubaltzetako euskaldun askok Ganbaran ikasi zuten euskara. AEK



Dozenaka pertsonak bisitatu zuten Ganbara 2017ko apirilaren 22ko okupazioan.

Hogei urte igaro dira Ganbara euskaltegiaren atea estreinakoz zabaldu zirenetik. Itzubaltzeta/Romo eta Areetako milaka herritarren artean euskara sustatu ostean itxi zen 2002an. Gaur egun, zulo bat dago bertan.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►



Ganbararen eraista

«Auzokideak haserre daude», dio Iruñe Etxebarriak, «ezintasun sentimenduagaz». Eraikina kolpeka bota zutela dio, «modu zabar eta arriskutsuan, segurtasun-baldintzak zaindu barik». Berbarako, habeetako bat Kalamua kaleko 13. atariko lehenengo solairura sartu zen. «Itzulbatzetarrek badakite denei irekita zegoen kultur gune bat galdu dutela, euskararen hauspo bat, negozio baten mesedean».

Itzubaltzetako Kalamua kaleko 11. zenbakian ez dago ataririk, ezta eraikinik ere. Hareaz betetako zuloa da orubea. Joan diren ekaina eta abuztuaren artean bota zuten bertan zegoen etxea, Ganbara AEK euskaltegia, zortzi apartamentu turistiko eraikitzeko. Iruñe Etxebarria AEK-ko irakasleak azaldu duenez, Ganbara 1988ko apirilaren 25ean inauguratu zen, arrakasta handiagaz: ikasgelak ez ezik, korridoreak ere egokitu behar izan zituzten euskara-eskolak emateko, eta halere, talde batzuk beste lokal batzuetara eroan behar izan zituzten, eskaera zabalaren eraginez. Urtero ehunka lagun lagundu zion euskaltegiak euskara ikasten, hobetzen edo

euskaraz egiten. Horretarako, kulturgintzak pisu handia izan zuen, Etxebarriak akordura ekarri duenez: ikasle eta irakasle ugarik parte hartu zuen maskaradetarako irteeretan, herriko aratustean, pintxo-poteoetan, Egizuren sorreran, Agate Deunako entseguetan, bertso-afarrietan, AEK Egunetan, Korriketan, Itzubaltzeta Kolektiboan eta abarrean. Eragin handia izan zuen euskaltegiak herrian, gogorarazi duenez.

Hamarkada bat beranduago, eraikina zaharberritu beharra zegoenez, solairu bat gehiago ipintzeko proiektua egin zuten; Getxoko Udalak hainbat traba ipini zion egitasmoari, eraikina babestuta zegoela eta fatxada mantendu beharra zegoela argudiatuta. Baimena lortu zenerako, AEK-k ezin izan zion obrari ekin. Alde batetik, ordurako, Getxoko Udala Euskaltegia Itzubaltzetara lekualdatu zen eta Ganbara asko jaitsi zen matrikulazioan; beste aldetik Baltasar Garzón epaileak interbenitu zuen koordinadora. Hala, 2002ko irailean AEK-k Ganbara euskaltegia itxi eta salgai ipini zuen, lanpostuak eta beste euskaltegiak mantendu ahal izateko. Etxebarriak aitortu duenez, hamabost urteren ostean «poz handia» eman zion 2017ko apirilaren 22an Itzubaltzeta Gaztetxeak Ganbara sinbolikoki okupatu izanak, hiru orduz «etxea herriaren esku utzi zuelako». ◀

**OSABIDE**
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

Areeta
Leioa, Berango
Sopela

Guarderia

Kalitatea
ERASMUS+

Innovación

Auzolana
Berrikuntza

BAI

Oui

KIVA

Algorita

San Nikolas
IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

LEIOA | Leihosex sexologia-orientaziorako zerbitzua

Sexu-galderak, isilpean eta doan

Leihosex Leioako sexuaren gaineko aholkularitza-zerbitzua oporretatik bueltan dago. Eguen honetatik aurrera ohiko kontsulta eskainiko dute astean behin, ohiko baldintzakaz: doakoa eta isilpekoa izatea. Bertaraterik ez daukatenek edo gura ez dutenek sare sozialen bidez galde dezakete.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Leihosexek denboraldi berria hasi du irailaren 20an, Aterpe Leioa Gaztegunean, Aldapabarrena kaleko 2. zenbakian. Zerbitzuak ohiko ordutegiari helduko dio, 16:30etik 18:00etara, Ana Vallés Renteria arduradunak iragarri duenez. Psikologoa, sexologoa eta hilekoaren terapeuta da Vallés.

Zerbitzua 13 eta 35 urte bitartekoei zuzenduta dago. Halandaze, erabiltzaileak gazteak dira eta horiek gutxi hurreratzen dira, «lotsagatik eta beldur txikiak izateagatik». Hala ere, sexologia-zerbitzuak bestelako bideak dauzka gazteei aholkularitza errazteko: «Normalean whatsapp bidez botatzen dituzte galderak edo jakinmina eragiten dizkieten gaiak; posta elektronikoz ere idazten dute». Horregatik, aurrez aurre joaten direnen adina apur bat nagusiagoa da, «gazte helduagoak edo euren gurasoren bat dira modu horretan datozenak», azaldu du sexologoa.

Bere ustean, «gazteak ez daude gizarte honetatik aparte». Horregatik, aholkularitza eskaintzen diete gazteakaz behar

Erabiltzaile-kopurua

Iaz, urte osoan, hamar bat pertsonak jo zuten Leihosex zerbitzuko kontsultara, aurrez aurre. Posta elektronikoz eta whatsapppe, dozenaka. «Askotan inguruko ikastetxeetan ere bagaudenez, sexualitate-tailerrak ematen, ezagutu egiten gaituzte eta ikasgelan argitzen ditugu zalantzak; zer edo zer pertsonalagoa gertatuz gero, orduan idazten dute», azaldu du Ana Vallés. **Eskaintza zabala dauka Leihosexek horretarako: Facebook, Twitter, Instagram, posta elektronikoa eta Whatsapp erabiltzen dituzte.** «Zerbitzuko ordutegia 90 minutukoa da aste osoan, baina beti gaude telefonoan edo ordenagailuan; hurbil gaituzte».

egiten duten profesionalei, gurasoei edo aitita-amamei ere: «Denak onartzen ditugu, informazioa gazteei bideratuta badago». Dena den, aholkularitza Leihosexen eginkizun nagusia eta norbaitek, berbarako, terapia behar izanez gero, zerbitzu hori eskaintzen duten profesionalengana bideratzen dute. Modu berean, kondoirik ez dute banatzen, baina zein farmaziatan saltzen diren esaten dute. Gazteen kasuan segimendua egiten dute, «haiek ez baitute dirurik izaten» profesionalengana jotzeko.

Nabarmena da «neskak gehiago etortzen direla mutilak baino; mutilek gehiagotan idazten digute». Nesken kasu gehienak desiraren eta plazer eta plazer-ezaren gaineko kezka izaten dira: «Zer egin dezaketen plazera sentitzeko edo gehiago gozatzeko», alegia. Berbarako, orgasmoa izan duten ala ez zantzak. Halere, denetarik dagoela gogorarazi du Leihosexeko arduradunak. Mutilen kasuan, berriz, galderak izaten dira plazeraren gainean, erekzioa mantentzearen ingurukoak edo horretarako zailtasunez. «Homosexualitateaz, desioen orientabide sexualaz ere idazten dute; ez dakite neskak gustatzen zaizkien, mutilak gustukoak dituzten, beste sexuak erakartzen dituen, eta hori zer den ere galdetzen dute».

Vallésék argi dauka Leihosexen helburu nagusia: «Norbanako bakoitza, bai neska edo bai mutila den heinean, bere sexualitatea modu onuragarri batean bizi; zerbitzua horretan laguntzeko dago». Hala, garrantzia ematen dio norberak bere desioak eta nortasuna ondo garatzeari eta bide horretan laguntza eskatzeari. ◀

PUBLIERREPORTAJEA

«Zu hemen zaude, AEK ere bai»

AEK-ko euskaltegi denetan zabalik dago ikasturte berrirako matrikulazioa. Euskara ikasteko garaia hemen dago berriro, izan euskara maila hobetzeko edo euskara erabiltzen jarraitzeko. Irailaren 28ra arte izena eman daiteke Leioan, Algortan, Urdulizen, Plentzian eta Gorrizen.

Euskara ikasi eta landu gura duenak, bertatik bertara dauka AEK-ko euskaltegiren bat, ehun baino gehiago, Euskal Herri osoan. Hezkuntza-sareak aurten iragarri duenez, «Zu hemen zaude, AEK ere bai».

Eskualdeko AEK-ko euskaltegietan ere zabalik dago 2018/19 ikasturteko matrikulazio-epea, hilaren 28ra arte. Hala, urritik ekainera, euskara ikasteko eskaintza zabala izango da AEK-k Uribe Kostan dituen bost euskaltegietan (Leioan, Algortan, Urdulizen, Plentzian eta Gorrizen) eta gainerako geletan: eskolak euskaltegian, guraso-taldeak, azterketak prestatzeko modulu bereziak, online ikastaroak, autoikaskuntza, barnetegiak, mintzapraktika-taldeak eta -jarduerak, normalizazio-planak, itzulpen-zuzenketako zerbitzua, *Aizu!* aldizkaria... eta Korrika.

Ordutegiari dagokionez, aukera dago klaseak jasotzeko goizez zein arrastiz, asteko egun denetan. Matrikula ere, goizez zein arrastiz egin daiteke aipatutako euskaltegietan. Hori dela eta, AEK-ko kideek herritarrak animatu dituzte

Korrika dator!

Hastekoa den ikasturte honetan 21. Korrika etorriko da. AEK-ko kideek gogor: ekarri dutenez, «euskararen aldeko karreraren bisita udaberrian izango dugu, eta, betiko legez, herritar, euskaldun, euskaltzale guztion laguntza beharko dugu, Korrikari eman ahal izateko merezi duen harrera».



2018/19 ikasturtean euskara ikastaroetan matrikula daitezten. Euskaltegietan ez ezik, informazio dena topa daiteke Internetez, honako webgune hauetan: Aek.eus, Aek.eus/blog/uribekosta eta [Facebook.com/uribekostaAEK](https://www.facebook.com/uribekostaAEK). ◀

LEMOIZ | Arrantzaren bilakaera Lemoizen

Armintzako arrantzaren memoria eraiki guran

Arrantzak izandako bilakaeraren nondik norakoak jasotzeko ikerketa abiatu du Basordako Gonagorriak taldeak, Baserritik Mundura ikastaroen barruan. Helburua da herritarrengandik gaiaz jakintza batzea.

IKER RINCON MORENO ▶

Lemoizen arrantzaren iragana, oraina eta etorkizuna aztertzen dabil egunotan Basordako Gonagorriak taldea. Horretarako, Armintzan arrantzaren inguruan dauden oroitzapenak eta jakintza biltzen ibili dira, baina ez itsasoari dagozkionak bakarrik, Amorruga ibaian egindako ustiaketa ere baitute azterbide. Ahalik eta herritar gehien batzea espero dute ikerlariek, denen artean arrantzaren gaineko memoria eta jakintza osatzeko.

Joan den barikuan, hilaren 14an, egin zuten lehenengo saiera, Armintzako kultur etxean. Lur Moragues Saitua Basordako Gonagorriak taldeko kideak jakinarazi duenez, «oso positiboa» izan zen esperientzia. Denera, udalerriko zazpi pertsona biltzea lortu zuten, hiru gizon eta lau emakume, adin ezberdinetakoak denak. Batzuk arrantzaleak ziren, eta garaiko egoeren berri eman zizkieten ikerlariei. Beste batzuek ordea, arrantzari lotutako beste zereginak izan zituzten aspaldi; arrainen salmentan eta Eskabetxerian beharrean ibilitakoak ziren, besteak beste. Hala, lehenengo bilera horretara hurbildutakoek iraganaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta adierazi zuten «oso beltz» ikusten dutela arrantzale txikien etorkizuna.

Basordako Gonagorrien arabera, arrantzaren sektorea gure herriaren paisaia kulturala ulertzeko funtsezko eragilea da. Hori kontuan hartuta, aipatutako ikerketa abiatu dute arrantza industrialaren ordezkotzat eskaini ahal izateko, «beti ere emakumeek arrantzan izan duten zeregina agerian jarriz eta behar bezala aitortuz».

BASERRITIK MUNDURA IKASTAROA. Aipatutako lanak *Arrantzaren bilakaera Lemoizen*; *Armintzako portutik Andraga gainera* du izena eta Baserritik Mundura: Gure Elikaduraren Etorkizuna ikastaroaren edizioaren barruko lana da. Ikastaro hori



Aspaldi arrantzale txiki ugari zegoen Armintzako portuan, baita Amorruga ibaian ere.

Gure herriaren paisaia kulturala ulertzeko arrantza funtsezkotzat dute antolatzaileek.

Ikerketaren bitartez arrantza industrialaren ordezkotzat eskaini gura dute.

Hegoa Institutuak eta EHNE-Bizkaia neskazarien sindikatuak antolatu dute. Bertan, elikadura-burujabetzan eta agroekologian trebatzen dabilta ikasleak, herri-hezkuntzako printzipioen eta metodologiaren bitartez. Ikastaro horretan, talde bakoitzak bere ikerketa-prozesu bat garatu behar du, eta horietako bat da Basordako Gonagorriak. Ikastaro horretako lau ikaslek osatzen dute taldea, denak emakumeak.

Moraguesek jakinarazi duenez, joan den barikuan batutako testigantzen eta hasiera bateko hausnarketen berri emango dute irailaren 21ean Bilboko Sarrikoko unibertsitatean izango diren jardunaldietan. Saioa irekia izango da, eta edonor hurbildu ahal izango da horietan parte hartzera. Hala ere, ordutegia ona ez delakoan, Lemoizen beste jardunaldi batzuk egitea aurreikusi du Basordako Gonagorriak taldeak. Oraindino ez dute zehaztu noiz izango den hori, baina antolatzeko gonbitea egin diete auzokideei: «Proposamenak jaso nahi ditugu». Ikerketaren emaitza denak, aldiz, azaroaren 10eko aste-akabuan aurkeztuko dituzte, Bilbon ere. ◀

Haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus

URIBE KOSTA | Euskaraldia

Euskaldunak aktibatzen ariketan, izen-ematea zabalik

Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimenean parte hartzeko norbanakoen izen-emate epea irekiko dute irailaren 20an, eguenean. Horren berri emango dute Iruñean, eta Getxokoak joango dira Uribe Kostako ordezkari.

IKER RINCON MORENO ▶



Izena emateko orduan rola aukeratu beharko dute parte-hartzaileek. HODEI TORRES

Euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza-ohiturak aldatzea da Euskaraldia ekimenaren helburua. Euskal Herriko hainbat elkarterek urteetan landutako «Euskarak 365 egun» lan-ildoaren barruan dago, eta mugari bi ditu: euskal hiztunen aktibazioa eta euskararen erabilera babesteko eta bul-tzatzeko neurriak hartzea. Horretarako, 11 egun euskaraz saioa egingo dute 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Egun horietan denetan, 16 urtetik gorako herritarrek Ahobizi eta Belarriprest rola hartu ahal izango dituzte. Ahobizi izango dira ulertzen duten denei euskaraz berba egiten dieten lagunak. Belarriprest, aldiz, gutxienez euskaraz ulertzen duten kideak, gainontzekoei euskaraz jarduteko gonbidapena egiten dietenak, alegia. Getxon, gainera, hirugarren rol bat izango dute aukeran: Iribizi. Euskara ulertu ez baina horren alde egiten dutenek hartuko dute paper hori.

Getxoko Euskaraldiaren dinamizatzaileek azaldu dutenez, aukera hori nabarmendu gura izan dute pertsona horiei esker euskarak biziberritze indartsua izan duelako udalerrian azkenengo hamarkadetan. Zehaztu dutenez, XIX. mendean biztanleen %90 euskalduna bazen ere, 1981. urtean getxoztarren %9,9 baino ez zen euskal hiztuna. Orduetik gaur arte, milaka ahalegin kolektibo, publiko, pribatu eta pertsonalen ondorioz, Getxoko biztanleen %33,28 euskal hiztunak dira eta beste %23,07 ulertzeko gai dira. «Gure hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapen indartsu honetan azpimarratzekoa da Iribiziek egin duten lana. Euskararik jakin ez arren euren seme-alabak

Ahobizi

«Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet ere»

Belarriprest

«Egidazu euskaraz mesedez, nik euskaraz zein erdaraz erantzungo dizut»

Iribizi

«Euskara ulertu ez arren, pozten naiz entzuten dudanean eta horren aldeko ekintzak babesten ditut»

euskaldundu dituztenei esker egin du euskarak aurrera gure herrian», azaldu dute. Pertsona horiei denei eskerrak emateko omenaldia egingo dute azaroaren 16an Romo Kultur Etxean.

AURKEZPENAK LEIOAN ETA PLENTZIAN. Barikuan, hilaren 21ean, Leioako Euskaraldiak bere hamaikakoa aurkeztuko du Boulevardean, 19:30ean. Ekimena zer den azaldu eta bertsolariak, puxikak eta musika egongo dira. Gainera, izena emateko aukera zabalduko dute. Egun berean aurkezpene egingo dute Plentzian. Ontziola plazan ipini dute hitzordua, 19:00etan, eta bertan ekimenaren nondik norakoak azaldu eta hamaikakoa aurkeztuko dute, besteak beste. Arduradunek jakinarazi dutenez, euria egitekotan udaletxeko arkupeetan egingo dute ekitaldia.

EUSKARALDIAN IZENA EMATEKO AUKERAK. Une honetan, eskualdeko ia herri denetan dago martxan Euskaraldia ekimena (Berango, Erandio, Getxo, Gorkiz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz). Orain, baina, udagoienean izango den hamaika eguneko ariketa sozialean parte hartzeko izena emateko ordua dute norbanakoei. Horretarako, dinamizatzaileek hainbat aukera emango dizkiete herritarrei. Gura dutenek honako helbideetara idatzi ahal izango dute: Erandion, euskaraldiaerandio@gmail.com; Getxon, euskaraldiagetxon@gmail.com; Leioan, leioaztarrak@gmail.com; eta eskualdeko gainontzeko herrietan, euskaraldiauribekostan@gmail.com. ◀



**euskaraz
bizi
nahi dut**

INFORMAZIO ▶
Santa Marina Haitza 14
48993 GETXO
944 911 786
www.aixerrota.hezkuntza.net

AIXERROTA BHI IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez
 DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)
 DBH 2: Matematika (Euskara/English)
 DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)
 DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez
 • Zientzia modalitatea
 • Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zereginek ikasteko gela



ITXASGANE

prentsa • aldizkariak • goxokiak

Getxoko kirol portua • 944 915 321



Hirugarren begia

**NERE FALAGAN
MARTIN**
Emakume
zinemagilea

Zineman, non gaude emakumeok?

Txikitatik istorioak kontatzeko grina izan dut. Irudia eta testua erabiltzen nituen erreminta gisa. Egun, irudian oinarritzen naiz. Zineman argazki-zuzendaritza esparruan nabil. Behintzat saiatzen naiz. Bada, ez da erraza gizonen mundu honetan emakume bat murgiltzea. Etsaia baikinan ikusten gaituzte? Emakume aktiboen beldur dira? Ez dut arrazoia ezagutzen.

Zinema-emakumeok baztertuta sentitzen gara. Zinema ikastea erabaki nuenean banekien zaila izango zela honetan jardutea, eta nire gain hartu nuen. Ez nintzen ohartu, aldiz, emakumea izanda are zailagoa izango zela argazki-zuzendaritzan sartzea. Zinema egiteko «frikia» izan beharra dago. Asteburuetan lan egin behar dugu, jendeak oporrak hartzen dituen bitartean guk pentsatu behar dugu nola kudeatu gure fakturak, materialean inbertitu behar dugu proiektuak aurrera eramateko, egunero zenbat balio dugun demostratu behar dugu...

Iceberg-aren puntaren azpian dagoen dena da hori, zinematik at dagoen jendeak ezagutzen ez duena. Hainbat pertsonak galdetzen didatenean zer egiten dudana, eta nik esaten didanean, hauxe da beren erantzuna: «Ze guay». Agerian da ez daukatela ideiarik nola funtzionatzen duen lan honek.

Egoera korapilatsu hau gizonen eta emakumeok bizi dugu, era berdintsu batean.

Berriz, argazki-sailean lana bilatu nahi dudanean, argiztapenean, adibidez, gizonen batek baino traba handiagoak ditut. Bera ni baino langileagoa delako? Arduratsuagoa? Indartsuagoa? Ez dizkiot nire buruari loreak bota nahi, baina... tira! Nahiago dut adibiderik ez jarri. Baina zinemara bazoaz, irakurle, erreparatu talde teknikoari. Non gaude emakumeok?

MARKEL REDONDO LARREA | Argazkilaria

«Neurrigabeko urbanismoa erretratatzeari izan da helburua»



Markel Redondoren azkenengo lana ikus daiteke egunotan Getxon. HO DEI TORRES

KEPA UGARTE MARTIARENA • IKER RINCON MORENO ▶

Egoeraren zentzugabekeria irudikatu eta agintarien geldotasuna erakusteko premiak bultzatuta, Markel Redondo argazkilaria (Bilbo, 1978) espainiar Estatutik bidaiatzen hasi zen 2008ko krisialdiaren ondoren, neurrigabeko urbanismoaren ondorioak erretratatu guran. Hamar urte ondoren berriro bisitatu ditu leku horiek, testigantza berriak jaso eta argazkiak drone bategaz egiteko. Lan horren emaitza ikus daiteke egunotan Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdian.

Zein da mota horretako lan bat egitearen helburua? Betidanik deigarria izan zaizkit argazkien bidez erretratatu ditudan lekuak, ez dakidalako zergatik amaitu duten horrela, utzita. Ez ziren bideragarriak, dirua xahutu da horietan eta betidanik zentzugabeak iruditu zaizkit. Helburu bakarra gutxi batzuk aberastea izan da. Etxebizitzaren kasuan, barbarako, hiru milioi etxe huts dago Espainian. Nire helburua gaia mahai-gainean jartzea izan da, zentzugabekeria hori ez ahaztea, eta leku askotan egin diren naturaren eta ingurumenaren kontrako krimenak salatzea.

Agintarien pasibotasuna ere mahai-gainean ipini gura izan duzu. Bai, pasibotasuna eta permisibitatea. Azken finean, udalak dira egoera horien erantzule zuzenak. Udallerrieta-

ko agintariek eman dituzte eraikitzeko baimeak, askotan aurretiko inolako bideragarritasun-ikerketarik gabe, gainera.

Uribe Kostan egoera horren isla den egoerarik aurkitu duzu? Ez, lan honetarako erretratatu ditudan lekuak utzitakoak dira, galdu direnak. Inguruotan, orokorrean, ez dago horrelakorik. Kostaldean kalteak eragin dituzten kasuak daude, baina egin eta saldu egiten dituzte, ez daude abandonatuta.

Sari bat irabazi duzu lan honez. Horrek eragina izan du proiektuaren oihartzunean? Bai, beka baten antzera funtzionatu zuen. Ideia proposatu nuen eta drone bat eman zidaten. Gainera, lanaren difusio-lan handia egin dute; interes handia piztu da horri esker.

Drone bategaz lan egitea berrikuntza da? Hasiara batean, orain hamar urte egin nuen bezala erretratatu gura nituen lekuak, lurretik. Baina, droneei esker, airetik argazkiak egin eta egoeraren benetako dimentsioa erretratatzeari lortu dut, osotasunean.

Zeintzuk aukera eskaintzen dituzte Getxophotok eta halako jaialdiek? Oso garrantzitsuak dira; Getxokoa, gainera, oso berezia da. Beste asko ez bezala, Getxophoto hurbila da, kalean dago eta erraza da jendearengana hurbiltzea, eta hori oso garrantzitsua da. Argazkilaritza normalizatzeko modu bat da. ◀



Sand Castles II

Txori-begizko ikuspegiaren bitartez, hondar moderno mota berri bat agerian utzi du Redondok. Eraikinok ez dute historiarik, sekula bizitarik izan ez duten eraikinen eskeletoak baino ez dira.

Surfaz eta musikaz inguratuta



SOPELA | Kosta Fest Udako azken aste-akabuan Kosta Fest jaialdi entzutetsuaren bosgarren edizioa egingo dute Sopelan; irailaren 20tik 23ra artean ehunka jarduera egingo da, doan. Besteak beste, Nafarroako El Columpio Asesino eta Kataluinako La Sra. Tomasa musika-taldeen joko dute. Egitarian batu dituzten ekitaldi denak hondartzetan, itsas-labarretan, inguruko mendietan, Kurtzio kultur etxean eta udaletzeko plazan egingo dira. Hain justu ere, azken horretan kokatuko dute musika-kontzertuen oholta nagusia.

Antzerkia

Irailak 21, barikua

La muerte de los otros

19:30 / 21:30 | Danontzat gaztetxea | Plentzia
Moon produkzioakaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan, lekua bete arte.

Irailak 23, domeka

Historia de un calcetín

18:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
La Canica taldeagaz. 4 eta 8 urte arteko umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

Azoka

Irailaren 20tik 23ra arte

Itsas Azoka

12:00-22:00 | Xake plaza (Areeta) | Getxo
Habanera eta Itsas-abesti jaialdiaren barruan. Besteak beste, itsasontzien maketak, itsaskiak, bakailaoa eta itsas-kontserbak egingo dira. Ordutegia, 12:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara izango da. Sarrera, doan.

Berbaldiak

Irailak 20, eguna

La fiebre del cemento, ¿corrupción en UK?

19:00 | Itzurbaltzetako Nagusien Etxea | Getxo
Tosutik Uribe Kostara jardunaldien barruan. Sarrera, doan.

Irailak 26, eguztena

Death café

18:00 | Piper's taberna (Algorta) | Getxo
Heriotzaz eta bizitza aberasteaz berba egingo dute. Ez da dolimina gainditzeko laguntza-saioa; asmoa ez da ondorioak ateratzea. Aurretik parte-hartzea baieztatzea beharrezkoa da, naomihasson@gmail.com / 666 685 038

Dantza

Irailak 21 eta 22

Sarean

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Ikuskizun berria estreinatuko du Organik taldeak. Sarrera: 6-12 euro.

«Porco Rosso» euskaraz emango dute Azebarrin



ALGORTA | Animazio-filma Proiektzioa umeentzat egingo dute domeka honetan, irailaren 23an. Hitzordua 18:00etan ipini dute; sarrera, doan.

Erakusketak

Urriaren 28ra arte

Emakumea eta Euskal Pilota

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Aldundiak antolatutako argazki-erakusketa. Doan.

Ikastaroak

Irailak 22, zapatua

Jar ezazu prest zure txirrina!

10:30-13:30 | Ingurumen Areeto | Getxo
Bizikleten mantenua egin eta matxurak konpontzeko oinarriko zantzuak emango dizkiete 6 eta 16 urte arteko umei zein gazteei. Doan.

Mobilizazioak

Irailak 21 eta 22

Tosutik Uribe Kostara martxa

Erandiotik Gorlizera
Informazioa: tosubetirako.wordpress.com

Irailak 23, domeka

Euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko martxa

10:00 | Astrabudua eta Plentzia | Uribe Kosta
Martxa zutabe bitan banatuko da: lehenengoa, Astrabudutik irtengo da; Leioa (10:15), Itzurbaltzeta/Romo (11:00) eta Algorta (12:15) zeharkatuko ditu. Bigarrena Plentziatik irten eta Urduliztik (11:15) eta Sopelatik (12:15) igaroko da. Zutabe biak Berangon elkartuko dira, 13:30ean; eta ekitaldia egingo dute, 14:00etan.

Musika

Irailak 20, eguna

Marban eta Rufus

20:00 | Fangaloka jatetxea | Getxo
Getxo Sound Fest jaialdiaren aurkezpena. Doan.

Canciones para compartir

20:30 | Piper's taberna (Algorta) | Getxo
J.C. Pichel abeslariagaz. Sarrera, doan.

Irailaren 21etik 23ra arte

Getxoko Habanera Jaialdia

19:30 | Xake plaza (Areeta) | Getxo
Trío Arrels (Menorca), Barca de Mitjana (Bartzelona) eta Areetxo zein Irutasun abesbatza egingo dira. Sarrera, gonbidapenagaz.

Irailak 22, zapatua

Getxoko 7. Dultzainero Eguna

12:00 | Algorta osoa | Getxo
Telletxen batuko dira, 13:30ean.

Artekale

Irailak 22, zapatua
Plentzia



12:30 *Lapur minak* antzezlana, Tornado konpainiagaz, Eleiz plaza.
13:30 Zo Zongo taldea, Erriberan.
18:00 *Jule* antzezlana, Hortzuga taldeagaz, Ontziola plazan.
20:00 The Funnes Troup taldea, portuan.
22:00 *Carbon club* antzezlana, Markeliñe taldeagaz, Ontziolan.

Egun osoan zehar, *Erretratuak* argazki-erakusketa.

Como hace 3.000 años

20:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Héctor Alterio aktoreak eta José Luis Merlin gitarra-jotzaileak parte hartuko dute olerkiak eta musika uztartzen dituen ikuskizunean. Gaztelaniaz. Sarrera: 15 euro.

Irailak 23, domeka

Txistularien XI. Agerraldia

12:00 | Josu Murueta plaza (Astrabudua)
Iparraize Txistulari Taldeak antolatuta.

Bestelakoak

Irailaren 21etik 23ra arte

Erandio Magikoa 2018

Erandiogoikoa, Astrabudua eta Altzaga
Tailerrak, magia-poteoak, ikuskizunak eta galak. Diego Calavia, Txoborro, Tor, Altrius, Juan Paños, Taylor, Txan, César Bueno eta Marsel egongo dira. Informazioa: erandio.eus

Irailak 21, barikua

Euskaraldiaren aurkezpena

19:00 | Ontziola plaza | Plentzia
Sarrera, doan.

Irailak 23, domeka

Altxorraren bila jolasa

10:00 | Ingurumen Areeto | Getxo
Familia osoarentzat. Doan.

CURSO
2018
2019

IKASTURTEA

MATRIKULA
ZABALIK

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA



Bulego ordutegia:

Horario de oficina:
09:30 - 13:30
17:00 - 20:00

Algortako etorbidea 104
48991 - Algorta (Getxo)

TODOS LOS NIVELES MAÑANA Y TARDE

MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXÁMENES OFICIALES LOS SÁBADOS

AZTERKETA OFIZIAK PRESTATZEKO IKASTAROAK LARUNBATETAN

PARA JÓVENES DE 6 A 16 AÑOS

6-16 URTEKO GAZTEENTZAT

3 HORAS SEMANALES • ASTEAN 3 ORDU
17:30-19:00

lunes y miércoles • martes y jueves
astelehen eta asteazken • astearte eta ostegu

944 606 671

www.jagirre.eus

idazkaritza@jagirre.eus



ERRUGBIA | Getxo eta Baionako errugbi-eskolen topaketa

Mugaren bestaldeko senidetzea

Zapatu honetan, hilaren 22an, bisita berezi eta preziatua izango dute Getxoko Errugbi Eskolako kideek, Fadurako bonboi-kutxan; Baionako errugbi-eskolako partaideakaz laugarren topaketa egingo dute.

ÍÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Goizeko 09:30ak aldera ailegatzekoa da Fadurara Baionako Aviron taldeko errugbi-eskolaren delegazioa. Erlantz Gorbea Martinez Getxoko Errugbi Eskolako arduradunak azaldu duenez, denera 100 bat neska-mutil batuko dira, talde bietakoak, eta horiekaz batera dozenaka guraso eta teknikari. 10:00ak aldera egingo dute entrenamendu bateratua eta, ondoren, 12:00etan lagunarteko partidua jokatuko dute 10 eta 12 urtez azpiko jokalariek. Talde bakoitzeko indarren arabera jokatuko dute lapurtarrek eta uribekostarrek elkarren aurka ala nahastuta, jokoa orekatua izan dadin. Kirol-lanak eginda, hirugarren denbora batera egingo dute, guraso getxoztarrek egingo duten paellaren inguruan. Gorbeak argitu duenez, topaketa ikusi gura duen edonor ondo etorria izango da errugbi-zelaiko harmailara: «Gure kirola eza-gutzeko oso egun polita da, gainera».

Fadurako errugbi-eskolako arduradunaren esanetan, «Ipar Euskal Herriko errugbia beste maila batekoa da; garrantzitsua da gure neskek eta mutilek talde horiek ikustea, behe-mailetan bada ere; bereziki Baiona Avironen kasuan, datorren bakoitzean zalaparta sortzen baita eskolan». «Elkar ezagutzea» da ekimenaren helburuetako bat, «Ipar Euskal Herria hor dagoelako, paraje, eta aldi berean asago». 2015eko azaroan sortu zen klub bietako eskolen arteko senidetzea, Ander Gorostiaga 10 urtez azpikoen ordezkari eta gurasoak baionesakaz egindako gestioei esker. Egitarauak bateratzeko arazoengatik eta eguraldi-alerta batengatik, ia hiru urte eman dute lapurtarrek Fadurara bueltatzeko; tartean birritan izan dira Getxokoak



Baiona eta Getxoko taldeen artean konplizitatea sortu da. © JORDI BLASI · GETXO RUGBY TALDEA

Laguntasuna ereinda

«Konplizitatea sortu da Baionakoakaz. Udaberrian Ipar Euskal Herrira lehiatzera joan garenean, elkarri animoak eman dizkiogu beste talde taldeen aurrean», ekarri du gogora Erlantz Gorbeak.

Baionako Jean Dager errugbi-zelaian, ume eta gaztetxoek topaketa egin eta lehenengo taldea ikusteko; datorren udaberrian berriro joateko asmoa daukate.

Hartu-emanetan euskara da gakoa, Gorbearen ustean: «Faduran, entrenamenduaren ostean, datozen jokalaria, entrenatzaileak, gurasoak... eta etxeokak, elkarregaz dabilta hirugarren denboran, solasaldian, apur bat gehiago elkar ezagutzen eta goiz-pasa ezberdina egiten». ◀

PAUSOZ PAUSO EUSKALDUN MASTITXU EUSKALTEGIA

Aurrematricula/Prematricula irailaren 3etik 21era del 3 al 21 de setiembre

HABE TITULU OFIZIALAK EUSKALTEGIAN BERTAN LORTZEKO AUKERA **HABE POSIBILIDAD DE OBTENER LOS TITULOS EN EL EUSKALTEGI**

Euskara ikastoko diru-laguntzak Subvenciones para el aprendizaje de euskera

MASTITXU EUSKALTEGIA
Bazterreko etorbidea, 78
48940 - LEIOA
euskaltegi@leioa.net
www.euskaltegi-leioa.com
t 94 464 00 02
Faxa 94 400 25 00

LEIOA **MASTITXU** **ETXETIK GERTU**

ESKUTIK HELDUTA ERANTZIBIDU ZURETZAT ERE BAI ETXETIK GERTU

hiruka app berria
Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

• Agenda
• Albisteak
• Argazkiak eta bideo albumak
• Geolokalizazioa
• SOS botoia

Deskargatu!

EDUKI GABI HEMEN Google Play
EDUKI GABI HEMEN App Store

URIBE KOSTA AGENDA

Argazkiak Albisteak Bideoak Ipar zelta kazetari!

NAIOMI A. MATTHEWS MARTIN | Borrokalari getxoztarra

«Irabazten dudan dena kirolean gastatzen dut»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Naiomi Anaiansi Matthews Martín irakasle eta borrokalari getxoztarrak grappling edo kimono bako jiu-jitsu munduko txapelketa irabazi zuen duela aste bi Astanan, Kazakhstanen.

Zertan datza grappling kirola? Judoan legez, zutunik hasten den kirola da, eta arerioa bota beharra dago. Beste kirol batzuetan borroka amaitzen da beste pertsona immobilizatuta uztean. Grapplingen arerioa botata, borroka segitzen du beste borrokalariak amore eman arte. Hori egin daiteke itozten, luxatzen edo, borrokaldiko denbora amaituta, puntuen arabera. Munduko Borroka Batuen (UWW) federazioak erabiltzen du grappling izena, baina kirola jiu-jitsu da berez.

Kimonoagaz ala barik borrokatzean, zein da ezberdintasuna? Kimonoagaz arropa oratu dezakezu eta hamaika teknika dago. Gainera, kimonoaren papar-hegalak erabil daitezke itozteko, hankak kontrola daitezke praktetatik tiraka. Berriz, kimono barik ezin duzu hartu ehuna: eskumuturretatik edo orkatiletatik hartu beharra dago. Beraz, kimono barik teknika-kopurua apur bat txikiagoa da eta intuizio handiagoa eduki beharra dago. Normalean, hasten den jendea kimono barik hobeto mugitzen da. Zehaztasun handiagoagaz jokatu beharra dago, ehunik ez dagoenez ez dago hainbeste igurtzimendurik, eta beraz, teknikan huts egin daiteke gehiago. Modu berean, ihes egitea errazagoa da eta horregatik zehaztasun handiagoaren beharra.

Zelan bizi izan zenuen Astanako txapelketa? Hiriak liluratu ninduen, Astana oso ederra da. Txapelketari dagokionez, lehiatzeko maila-aldaketa ekarri zidan. Orain arte, borrokatze-ateratzen nintzenez, ez nengoen ziur neure buruaz. Baina aurten psikologikoki oso ondo prestatu naiz, Rodrigo Pires eta Iñigo Álvarez nire entrenatzaileakaz. Konfiantza handiagoa eragin didate eta atera naizenez, ez dut izan arerio bat



Matthewsek emakume denei gomendatu die jiu-jitsu praktikatzea, defentsarako eta fisikoki ahalduentzeko. HO DEI TORRES

Kasualitatezko bokazioa

Naiomi Matthewsek aitortu duenez «kasualitatez» aukeratu zuen jiu-jitsua. Industria-ingeniaritza ikasten zuenean, kung-fu egiten hasi zen, «barrena apur bat husteko eta ondo pasatzeko, zaletasun handi barik». Abuztuan, bere gimnasioa itxita egon zen. Hala, egun batean, hondartzan surf egiten zegoenean, lagun batek bere gimnasioa gonbidatu zuen, irekita zegoelako. «Abuztu horretarako soilik joan nintzen eta sei urte daroatzat». Kung-fua laga du, eta surferako ia astirik ez dauka, «egun osoa entrenatzen ematen dudalako».

aurrean, urte osoan egindako lan dena baizik. Halandaze, segurtasun handiz atera izan naiz, entrenatzen banengo legez, borroka hori daborduko irabazita baneuka bezala.

Zelakoa da nazioarteko kirolaria izatea, babesle barik? Apur bat aspergarria. Hautatzen nauten UWWko Europako eta Munduko txapelketen gastuak ordaindu dizkit federazioak. Baina beste asko nik neuk ordaindu behar ditut eta ezin dut. Hortaz, gurasoakaz bizi naiz: irabazten dudana dena kirolean gastatzen dut. Goi-mailako kirolari bat ateratzeko jende asko dago atzean laguntza ematen: nutrizionista bat berbarako. Nire amak esaten duenaren kontra, ez da nahikoa ondo jatea, nik guztiz sasoiaren egon beharra daukat, obus baten legez, gimnasioan esaten dugunez. Borrokatze-ateratzean ez dut mugarik izan behar eta horretarako nutrizionista, prestatzaile fisikoa, entrenamenduak, kirol-gehigarriak, fisioterapeuta... Ez dut soilik Riders-en (Itzubaltzetan) entrenatzen, batzuetan Valentziara joan beharra daukat; aurten Hanburgon ere egona naiz... Eta bidaia denak nik ordaintzen ditut. Goi-mailako kirolaria izan gura badut, goi-mailako entrenamenduak bilatu behar ditut. Nire taldean baditut, eta taldekideak asko laguntzen didate, baina halere, beti hobetu beharra dago. Bestalde ekipamendua dago: kimonoak oso garestiak dira eta entrenamenduetarako arropa baita ere. Orain kirol-zapatilak erosi behar ditut eta euroak banan-banan zenbatzen nabil ea noiz eros ditzakedan. Eskerrak jendeak laguntzen didala. Halere, zaila da. ◀

Sartu gure webean www.cianoplan.es

☞ kartelgintza
☞ inprimategia
☞ kopisteria

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

ERANDIO | Lan-baldintzak hobetzearen alde protestan

Egunero lanuzteak Loramendiko zahar-egoitzan

Sanitas Loramendiko greba-batzordeak jakinarazi du egunero lau orduko lanuzteak egiten hasi direla egoitzako garbiketa-taldeko langileek jasaten dituzten lan-baldintzengatik protestan. Mobilizazioari epe barik eutsiko diote momentuz. Grebalariek kezu dira azken urteetan egitekoak asko handitu direla, egoitzak gela berriak zabaldu dituelako besteak beste, baina hala ere zuzendaritzak ez diela % 100eko lanaldia ipini gura izan aipatutako baldintzetan dabiltzanei.



BERANGO | Burdin Hesiaren Museoa

Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa sei urte bete ditu aurten. Urtemuga hori ospatzeko jaialdia egingo dute domekan.

GETXO | Azken agurra



Joseba Imanol Markaida Bilbao
Getxoko PSE-EEko zinegotzi ohia hil da, 64 urte zituela.

SOPELA | Tira-birak udaletxean

Alkateak eta herritar batek elkar salatu dute ustezko eraso baten ondorioz. Bigarrenak dio alkateak bultzatu eta lurrera bota zuela.

GETXO | Hirigintza

Alango eta Aiboa arteko ibilbideak hobetzeko lanak abiatu dituzte. Inguru horretan oinezkoentzako baldintzak hobetzea da helburua.

GETXO | Serifalaris

Diseinu grafikoko topagunea izango da Areta aurten ere

Serifalaris diseinatzaile grafikoaren topagunearen seigarren edizioa egingo dute irailaren 28an eta 29an Getxon. Espezialitate horri lotutako 300 profesional eta ikasle baino gehiago egongo direla aurreikusi dute.



GETXO | Areetako Mesedeetako jaiak

Festa-girora txonbo egingo dute areetarrek aste-akabuan

Barikuan, hilaren 21ean, hasiko dira Areetako Mesedeetako jaiak, eta hiru egunz adin denentzako hamaika ekitaldi egongo dira aukeran. Ohi legez, Eskoletako plaza eta Adiskidetasun kalea izango dira jaietako gune nagusiak.



30 urte

Plentziako banderaren 30. urteurrena ospatuko dute datorren urtean. Urtemuga berezi hori antolatzeko, lehenengo bilera egingo dute irailaren 24an, 19:00etan Goñi Portal kultur etxean.

Euskal Ezkontza, Astrabuduan



XIX. mendeko euskal ezkontza antzestu du Trabudu dantza taldeak



Mozorroak dantzan, Urdulizen



Mozorro-lehiaketa egin zuten irailaren 15ean Urdulizko Andra Mari jaietan.



Lurrunezko lokomotorean



Trena Plentziara ailegatu zeneko 125. urteurrena ospatu zuten irailaren 16an.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

**Kultur Leioari esker,
Circo de pulgas
ikuskizunaz gozatzeko
sarrera bikoitz bi
zozkatuko ditugu**

Urriaren 5eko (barikua) ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, irailaren 30a (domeka) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Iraileko saria



Bi lagunentzako gosaria, Owl Coffee House komertzioaren ekimenez

Sopelako komertzioari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali irailaren 30a (domeka) baino lehenago zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

			5	9	7			
3	1							
	3		9					8
9			1	4	3	6		
				7		4		
	4		6	5				2
	6		4	7			5	
		5	8					6

					4			
	9			6	5			
		5		4				8
			1					
	6			8				2
8	4		3				1	
		1	6					
	8		5	3	2			
6			9					4

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

4	7	1	3	6	8	2	5	9
9	2	3	1	5	4	7	8	6
9	5	8	7	6	1	2	4	3
5	1	7	6	3	9	4	2	8
2	4	8	7	5	9	3	1	6
4	2	9	8	7	5	6	1	3
3	8	6	2	4	1	9	7	5
8	6	2	1	4	3	5	7	9
1	3	5	2	6	8	7	4	9
4	6	7	2	5	3	1	8	9

9	6	4	3	1	8	5	2	7
3	5	8	2	7	4	6	9	1
7	1	2	5	7	6	9	3	8
4	9	1	4	3	7	8	5	6
5	9	3	4	8	1	2	7	6
8	7	2	6	9	5	1	3	4
4	8	5	9	2	7	6	1	3
6	8	9	5	3	4	8	6	2
1	3	7	2	6	5	3	1	4
2	8	4	6	5	1	9	3	7

Hitza emanda

Barazkiak

Askotan urrunetik
mahaira ekarriak,
hamaika tratamendu
dituzten jakiak...
Betetzen hasiz gero
etxean saskiak,
prezio hobea izango
luke barazkiak!



NAROA TORRALBA RODRIGUEZ
Larrabasterra



Sukalde tradizionalaren pausoei jarraituz



Borda erretegia

Txopoeta, 31
ALGORTA
946 126 999

Neguri Langileko Gernika parkearen ondoan topatuko duzu taberna, autobus geltokiaren aurrean, hain zuzen. Bazkaltzeko ordutegia 13:00-16:00 da, eta afaltzekoa, 20:30-23:00, martitzenetik domekara.



TESTUA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Betiko plater tradizionalak gurago dituztenak oraindik bada dira munduan. Abakandoa oliba-olioagaz zartaginean frititua, berakatzak lagunduta. Edo txuletoia plantxan, okela xigortuta kanpotik eta gutxi errea barrutik, gatz lodiak falta zaion «azken ukitua» ematen diola. Hamaika aukera ditugu Bordan, betiere sukalde tradizionala errespetatzen bada. Gaur egungo sukalde ospetsuenetan modan jarritako teknika berriak alde batera uzten dituzte jatekxan, jakiei bitsa ateratzea edo esterifikazio-prozesua, besteak beste.

«Janaria hondatu gabe prestatzen ditugu platerak egunero, erraz, sukaldari tradizionalei men eginez», esan digu Kotska Mandalunizek, negozioaren ugazabak. Legatza, itsas-zapoa, lupia, erreboiloa, abakandoa... Itsasoko generoa da nagusi Bordako menuan eta denboraldiko produktuak zerbitzatzen dituzte baka-

Ziza horiak parmentier saltsagaz

Osagaiak:

Ziza horiak, patatak, pipermina, esnea, gurina eta arrautza bat.

rrik. «Puntu eginiko txuletoiak, noski, ez du hutsik egiten», dio Mandalunizek.

Pintxoak ere eskaintzen dituzte barran, horietako bat goiko argazkian ageri zaizuna: ziza horiak parmentier saltsagaz. Prestatzeko, lehenik eta behin parmentier krema egin beharra dago. Gurina sutan berotu ondoren, patata egosia eta ziza hori puskak botatzen dira, esnea eta piperminagaz batera. Su motelean berotzen dira osagaiok, krema egiten den arte. Azkenik, arrautza bat egosi eta su motelean berotu. Platera hartu eta ziza hori zatia, krema eta arrautza ipintzea besterik ez da falta. Prest dago pintxo!

Probatu gura izatekotan, hurbildu zaitez Bordara, edo Internet bidez egin ezazu erreserba. Martitzenetik domekara bazkariak eta afariak eskaintzen dituzte egunero-egunero; aurrerago, neguan, bariku eta zapatuetan baino ez dituzte emango afariak. Jate-kontuetan tradizioa gustuko baduzu, zalantza barik bisitatu behar duzun jatekxan. ◀

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

Elkagai ekologikoak

Ekotzeak eta banatzaileak
★
Etkez etxeko zerbitzua

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

